

Poemak zeruan



Jakoba Errekondo

Posta elektronikoa:
mandio@zerain.eus

Gibran Khalil Gibran poeta eta artista egun Libano denaren barrutian jaio zen Otomandarren Inperioaren garaian, 1883an. Artista izugarria omen zen. Niri berak idatzitako aipu txiki batek piztu dit arreta. Khalilek zioen lurra zeruan idazten dituen poemak direla zuhaitzak.

Rabindranath Tagore eragile eta idazle bengalarra zen, Kalkutan 1861ean jaioa, eta 1913an Literatura Nobel Saria irabazi zuen. Bere kultura-ko paisaiez erruz idatzi zuen, tartean honoko hau: "Entzuten ari den zeruari hitz egiteko lurraren ahalegin amaigabea dira zuhaitzak".

Zuhaitzak landatzeko sasoian gaude. Lan hori hartzeko arrazoi bila ez dago zertan urruneko poetengana jo. Neuk, ordea, naturaren garrantziaz jabetzeko poetek asko laguntzen dutela ikasi dut. Zientziak esango digu zuhaitzak janaria ematen digula, uraren kutsadura galarazten duela. Poetak esango du zuhaitzak ez zaituela traizionatuko. Zein baino zein, hirurak arrazoi bikainak zuhaitzak landatzeko.

Niretzat, funtsezko beste arrazoi bat bada zuhaitzak etengabe landatzeko. Klima dela eta ez dela, gure buruan daukagun borratea ikaragarria



da; batik bat eguraldiaren iragarpena negozio asarrea bihurtua dugunetik. Naturatik gero eta bereiziago bizi garenez, izugarri kostatzen zaigu ingurumena ezagutzea eta sudur-muturretik haraxeago gertatzen denaz jabetzea. Horretan, zuhaitzek urgentziazko laguntza ematen digute, laguntza itzela. Begirada luzatzera gonbidatzen gaituzte. Urrutitik erraz ikusten dira, eta, besterik ez bada, urtaroak garbien adierazten dituztenetako landareak

dira. Urtaroak, bai; dagoeneko gure jakintzatik ezabatzen ari garen sasoi horiek...

Jon Gerediaga poeta bilbotarrarentzat ere zuhaitzek aparteko garrantzia dute; izenburuan jaso ditu *Argia, lurra, zuhaitza, zerua* liburuan. Poeta sasoiak erasaten diote: "Pozik nago udaberria heldu delako...". Poetak landareak nahitaezkoak ditu: "Eta hitz hauek ez dute inporta / lore zuriak lore zuriak".

Zuhaitzak landatzeko sasoian gaude. ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Kaixo Jakoba. Lur azidokoa da gure baratzea, eta errauntsak bota nahi dizkiogu, pH-a neutralizatzen. Gure galdera da: zenbat denbora behar da itxaron errauntsak bota ondoren zerbait ereiteko/landatzeko? Eta simaurra edo luarra bota ahal zaizkio ondoren edo lehenago? Zein denbora tarterekin? Esker mila!

Joxi Martín Haba (Santurtzi)

Kaixo Joxi eta konpainia. Lur azidoaren pH-a neutralizatzen oso egokia da errauntsa. Errauntsa bota eta segidan egin daiteke edozein lan, erein bezala landatu. Errauntsak ez du lurra erretzen, ezta kare biziak erretzen duen pittin hori ere. Errea denez hilda dago. Beraz lurraren gainean zabaldua edo berarekin nahasita, berehala jar daiteke landarea.

Organikoa aurretik bota zalea naiz ni. Eta egokiena ilargialdi bateko tartea uztea da. Orain negu-neguan simaurra edo luarra, eta martxoan errauntsa. Lur motela edo buztintsua bada biak suelto dantzatu. Mesede ederra egingo dio.